



ERANSKINA

FORU DEKRETUA

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saila
Ekonomia Garapenaren Zerbitzua
Esp. Zk.: 4501/19

Onestea Agora Teknocamp ekitaldian izena emateko kuota.

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoen ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (ALHAO, 78. zk., 2018ko uztailearen 6koa) bere artikuluetan arautzen du tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa, eta 25.1 artikuluan xedatzen du, prezio publikoen munta ezartzeko eta aldatzeko, Foru Gobernu Kontseiluak foru dekretu bat egingo duela.

9/2018 Foru Arau horrek 24. artikuluan xedatzen duenaren arabera, hala aholkatzen duten gizarte arrazoiak, ongileak, kulturalak edo onura publikokoak daudenean, aurreko apartatuan aurreikusitako parametroen azpiko prezio publikoak ezarri ahalko dira (kostuak estaltzeko adinakoak, gutxienez), diruz lagundutako prezioaren zatia estaltzeko behar diren aurrekontu aurreikuspenak hartu ondoren. Bistakoa da Agora Teknocampe baduela interes publikoa, hain zuzen hezkuntza proiektua baita, azterlan teknikoak gazte-gaztetatik jolas giroan sustatzeko tresnatzat balio duena, batez ere neskak diren artean, Arabako enpresek profil teknikoko profesionalak izateko dauzkaten premiei erantzuteko. Bestalde, aurrekontu aurreikuspen nahikoa dago kostuak estaltzeko, zeinak izen emateen kuoten bidez jasoko diren sarrerak baino handiagoak baitira.

Horregatik, eta araudiak xedatutakoari jarraituz, proposatzen da onestea Agora Teknocamp ekimenean izena eman nahi dutenei eskatu beharreko prezio publikoa.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau xedatzen dut:

XEDAPEN BAKARRA

Onestea Agora Teknocamp ekitaldian izena emateko kuotari dagokion prezio publikoaren araudia.

1. artikulua. Zerga gaia

Prezio publiko honen zerga gaia da Agora Teknocamp ekitaldirako izen ematea.

2. artikulua.- Ordaintzera behartuak

Ordaintzera behartuta daude Agora Teknocamp ekitaldian izena eman duten pertsona fisikoak edo haien guraso, tutore edo legezko ordezkariak.



3. artikulua.- Izena emateko kuota

Agora Teknocamp ekitaldian izena emateko kuota 100,00 euro izango da.

4. artikulua. Sortzapena

Agora Teknocamp ekitaldirako plazaren esleipena jakinaraztean sortuko da kuota ordaintzeko beharra.

5. artikulua. Ordaintzeko modua

Esleipena baieztatutakoan egingo da ordainketa; hain zuzen ere, horretarako gaitutako banku kontuan.

6. artikulua. Kudeaketa eta administrazioa

Prezio publiko hori kudeatu eta administratzea Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren bidez gauzatuko du.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.